

GASOLIOAREN HORNIDURA - Maila aurreratua***Hornitzaileentzako egiaztapen-zerrenda: Ingurumen-irizpideak*****1. ERANSKINA: BALDINTZAK**

Markatu BAI zutabeko laukitxoak, nahitaezko espezifikazio minimo guztiak eta konpromisoa hartutako espezifikazio baloragarriak betetzen direla egiaztatzeko.

Nahitaezko irizpideak bete ezean edota haiek betetzen direla egiaztatzen duen abalik aurkeztu ezean, eskaintza esleipen-prozedurako hurrengo faseetatik kanpo geratuko da automatikoki.

Espezifikazio baloragarrien kasuan, espezifikazioa betetzen dela egiaztatzeko abalik aurkeztu ezean, atal horretan punturik gabe geldituko da eskaintza. (Puntuazio horrek abantaila gehien dituen eskaintza identifikatzeko balio du).

Enpresaren izena:		
Nahitaezko irizpideak	Bai	Abal mota / Memoriako orria
Osaera		
Gasolioaren ezaugarri kualitatiboak	<input type="checkbox"/>	1
Kontsumitzailearentzako informazioa		
Zenbatekoak amaitutako aldian	<input type="checkbox"/>	2
Hileko informazioa	<input type="checkbox"/>	3
Urteko informazioa	<input type="checkbox"/>	4

Jarraibideak

«Abal mota/Memoriako lokalizazio orria» zutabean, espezifikazio bakoitza edo irizpide baloragarri bakoitza bete dela abalatzten duten ingurumen-ziurtagiriak eta ekoetiketak sartu dira, edo informazioa jasota izan dezakeen dokumentazioa; hala ere, beste mota bateko egiaztagiri baliokideak ere onartuko dira, baldin eta ezarritako irizpideak bete direla argi adierazten badute.

Dokumentuek honako zenbaki hauek dituzte:

1. Ezaugarri kualitatiboak biltzen dituen txostena, sufre-edukia adieraziz
2. Formatu elektronikoan egindako faktura, amaitutako epean egindako zenbatekoak adieraziz
3. Excel formatuan egindako txostena edo espezifikazio teknikoetan zehaztutako informazioarekin bat datorrena
4. Hornidura-puntu bakoitzeko kontsumoen urteko bilakaera azaltzen duen txostena
5. Kamioi-flotari buruzko informazioa ematen duen dokumentua, gas-emisioen maila adieraziz.